

LANDER MARTÍNEZ

Euskararen jakintzan eta erabilera aurrera egitea euskal gizarteak duen erronkarik garrantzitsuenetakoa bat da oraindik ere, eta gizartea erakusten ari da, bere ahaleginaren eta konpromisoaren bidez, eguneroko bizitzan euskaraz gehiago hitz egin dadin nahi duela. Euskal herritarrek euskararen inguruan egiten duten balioespen positiboak gora egin du denborarekin, baina ezin dugu ahaztu gaur egun jende askok bizkar ematen diola euskarari eta euskaraz produzitu eta sortzen den kulturari.

Adituek diotenez, euskara arriskuan dago oraindik. Izan ere, diglosia-egoeran dagoen hizkuntza bat da eta, ezagutzari dagokionez, azken hamarkada hauetan lortu den aurrerapenak ez du bermatzen eguneroko bizitzako erabilera, gero eta euskaldun gehiagok baldin badakite ere. Azken azterlan soziolinguistikoeak adierazi dutenez, gero eta gehiago dira ikasketak D ereduan egiten dituzten haurrak, baina euskararen erabilera, eskola-eremutik kanpo, gelditu edo urritu egin da haur horien kasuan. Eta urritze hori gainerako adin-tarteetan ere gertatzen ari da.

Euskara suspertzeko ezinbesteko bultzadetako bat euskal gizarte osoak eta, bereziki, eremu euskaltzaleko erakunde, elkarte eta pertsonak euskararen alde egin duten eta egiten duten lana da. Ahalegin horrek ez du beti jaso beharrezkoak diren baliabide materialez hornitutako hizkuntza-politika ausart eta irmo baten babes. Azken urteotako aurrekontu-murrizketak horren adibide garbiak dira.

HIZKUNTZA- POLITIKAREN INGURUAN

Dirudienez, inertzia politikoak irudimenaren, ausardiaren eta baliabideen gabezia kronikoa eragin du erakundeek euskararen alde hartutako neurrietan.

Euskal erakundeetan sartu ginenetik, Podemos-Ahal Duguk behin eta berriz adierazi du hizkuntza-politikaren orientazio berri bat behar dela, hau da, herritarren eta gizarte-eragileen eskariak kontuan hartuko dituen, euskal hiztun aktibo eta motibatuen kopuruak gora egiteko euskararen ospearekin eta eguneroko bizitzako erabilerarekin lotuta dagoena bultzatu behar dela ulertuko duen eta horri beldurrik gabe aurre egiteko gai izango den orientazio berri bat. Ikuspuntu horretatik, gure ustez, badaude elementu garrantzitsu batzuk hori lortu ahal izateko: irakatsi eta ikasteko sistema, euskaltegien udal-sarearen doakotasuna eta hedapena eta abar.

Dakigunez, euskara helduaroan ikasteko aukera faktore pertsonal ugariaren arabera da. Horien artean, adina eta inguruabar sozioekonomikoak dira azpimarragarrienak. Faktore horien ondorioz, euskara ikasteko borondatea ezin da gauzatu babes-neurri eta

laguntza batzuk gabe. Neurri horiek, bestalde, eragingarriak izan behar dute helduaroan euskalduntze-prozesuari ekiteko garaian hain beharrezkoa den motibazioa areagotzeko.

Bestalde, euskara ikasteko hainbat maila gainditu behar dira, eta bidezko komunikazio-gaitasunak eskuratu behar dira. Gaitasun horiek euskaltegietan egiten den ebaluazioaren edo hezkuntza-sistemaren bidez ziurtatzen dira, eta Europako esparru komunarekin homologatutako mailak lortzen dira.

Euskal hizkuntza-politikaren eremuan, "EGAzentrismoaren" (hots, formalismo gramatikalean oinarrituta eta hizkuntza-ezagutzaren goiko mailetara bideratuta dagoen eta kanpoan egin beharreko errebalidak eta azterketak dakartzan irakaskuntza-ikuspegiaren) inertzia handia gainditzeko ahaleginak egiten ari dira azken urteotan. Gizartearen eta euskararen aldeko babesaren mesederako, beste ikuspegi bat hedatzen ari da: komunikazio-ikuspegi. Ikuspegi hori euskaltegi batzuek bultzatu zuten hasieran, eta ebaluatu eta egiaztatzeko sistemara zabaldu da ondoren.

Aldaketa-testuinguru horretan, atzerapen handiegiz bada ere, gaur egun etengabeko ebaluazioa eta ziurtapena onartuta daude hezkuntza-sisteman, egiaztapen mota berrietarako joera dago (lanpostuan, trebetasunen arabera, ahozkoa eta idatzizkoa bereizita eta abar), eta gure errealitate soziolinguistikorekin bat datorren elebitasun pasiboaren balioa onartuta dago. Eta duela oso gutxi, 2015/2016 ikasturtean, nazioartean 2001. urteaz geroztik indarrean dauden Europako esparru bateratuko A1 eta A2 mailak onartu ditu HABEK.

Hala ere, euskara administrazio publikoetan arautzen duen araudia duela 20 urtekoa da (86/1997 Dekretua) eta ez dago oraingo aldaketara eta beharrezkoak diren beste batzuetara egokituta. Horrela, beraz, oinarritzko maila horiek ez daude hizkuntza-eskakizun gisa guztiz aitortuta administrazioan, eta ikasleek egiten dituzten aurrerapenak (hasieran euskaraz ez zekitenen kasuan) merezitako balioespenik gabe geratzen dira.

Gure ustez, gaitasunen eskuratzean oinarritutako ebaluazio-sistema baten esparruan, A1 eta A2 mailak administrazio-ondorioekin aitortzeak areagotu egingo du ikasleen motibazioa, eta baliagarria izango da

euskalduntze-prozesua behar baino lehen bertan behera ez uzteko.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea lehen mailako kontua da. Euskaldunek beren harremanetan euskaraz egiteko eta erantzuna euskaraz jasotzeko duten eskubidea eta euskaldunak ez direnek beren hizkuntza propioetako bat jakiteko duten hizkuntza-eskubidea. Gaur egun, herritar guztiek eguneroko bizitzan eta administrazioarekiko harremanetan euskaraz egiteko eskubidea beteta ez edukitzeak eta euskara ikasi nahi duten pertsona guztiek arrazoi ekonomikoengatik aukera hori ez izateak asko esaten du gure herrialdeaz.

Nahi dutenek beren hizkuntzetako bat jakiteko eta hizkuntza horretan hitz egiteko eskubidea baliatu ahal izateko oztopo ekonomikoak desagerrarazteak politika publikoen ahalegin nagusietako bat izan beharko luke, eta euskararen eremuan diharduten gizarterakunde eta agenteekin lankidetzan egin beharko litzateke. Hizkuntzaren normalizaziorako politiken ikuspegi berriaren barruan, politika horien helburu nagusia ez da eskakizunak egiaztatzea eta azterketak gainditzea, euskararen erabilera bultzatzea eta naturalizatzea baizik.

Ildo horretan, Gernikako Estatutu berrian, euskara C1 mailaraino ikastea doakoa izango dela jasotzea proposatzen du Elkarrekin Podemosek, eta horixe adierazi dugu Eusko Legebiltzarreko Ponentziaren esparruan Estatutu berri horretarako egin dugun proposamenean.

Udal-euskaltegien sarea 38 euskaltegik osatzen dute gaur egun. Euskaltegi horiek Bizkaian eta Gipuzkoan banatuta daude nagusiki, Bilbon eta Donostian izan ezik, deigarria bada ere. Araban, berriz, oso urriak dira.

Hamarkada hauetan, helduen euskalduntzearen esparruan egin duten lan garrantzitsuak guztion esker ona merezi du. Hala ere, ongi dakigunez, euskaltegi batean matrikulatzeko kostu ekonomikoek eta laguntza publikoen sistema desorekatuak ez dute batere laguntzen euskara ikasi nahi dutenek doan ikasi ahal izan dezaten.

Horri, gainera, adierazitako lurralde-desoreka erantsi behar diogu, hiriburuei (udal-euskaltegirik gabe) eta Arabako lurraldeari (udal-titulartasunpeko euskaltegi bakarra)

dagokienez. Hortaz, euskara hurbileko euskaltegi publiko batean ikasteko zailtasunak askoz handiagoak dira Araban.

Ilido horretan, udal-euskaltegien sarea sendotzea ezinbesteko zeregina da, bai ikaskuntzaren doakotasuna ziurtatzeko, bai egungo eskariari erantzungo dion sare publikoa sortzeko. Ahalegin horrek, beraz, bereziki hartu behar ditu kontuan hiriburuak, Araba eta hurbileko euskaltegirik ez duten euskal herri guztiak.

Elkarrekin Podemos sare publiko hori pixkanaka haztearen alde dago, EAEko udalerrietan euskara ikasi eta erabiltzeko baldintzarik onenak ziurta daitezzen.

Lerro hauek idazten ari garen unean, euskararen ikaskuntzaren doakotasuna bete gabeko promesa da oraindik eta, gainera, B2 mailara baino ez litzateke iritsiko, Jaurlaritzak baztertu egin baititu C1 mailara zabaltzeko egindako legebiltzar-ekimen guztiak. Agente guztien ustez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2017. urtean euskalduntzera eta euskararen normalizazio eta babesera bideratu duen aurrekontu bidezko finantzaketa ez da nahikoa. Gainera, ia gehikuntzarik izan ez duen partidetakoa bat izan da.

Ez dirudi sintoma horiek guztiek egungo Eusko Jaurlaritzari artikulua honetan defen datu dugun aldaketa ausart bati ekiteko kezka sorrarazi diotenik.

ILDO HORRETAN, UDAL-EUSKALTEGIEN SAREA SENDOTZEA EZINBESTEKO ZEREGINA DA, BAI IKASKUNTZAREN DOAKOTASUNA ZIURTATZEKO, BAI EGUNGO ESKARIARI ERANTZUNGO DION SARE PUBLIKOA SORTZEKO.

Gure ustez, hizkuntza-politikak premiaz behar duen norabide-aldaketarako lehen urratsak egin daitezke proposamen horien bidez. Norabide-aldaketa horretarako, ezinbestekoak dira baliabide materialak (aurrekontu bidezkoak) eta abian jartzeko borondate politikoa. Tamalez, gaur egun, ez dirudi Eusko Jaurlaritzan hori guztia egiteko ardura duten alderdiak horrekin kezkatuta daudenik edo beren politika beste era batera bideratzeko beharra ikusten dutenik. Egungo egoeraren aurrean agertzen duten erosotasuna erraz ikus daiteke legegintzaldi honen lehen urtean garatutako gobernu-jardunari erreparatzen badiogu.